



SENPEREKO TRAIL-AREN ARAUAK

2014ko Martxoaren 9-an

1° Artikulua : Antolakuntza

Senpereko Trail-a bakarkako mendi lasterketa bat da, hein ertainekoa. Lasterketa pista eta bide bizkartsuetan iragaiten da.

Abiatzea goizeko 9 etan emanen da. Ibilbideak 21,5 km egiten ditu, 1027 metroko desnibelarekin.

Helmugarat heltzeko epea 4 ordukoa da.

Antolatzaileek ibilbidearen seinaletika segurtatuko dute. Kartarik ez da behar, ez eta ere bizkarrak gaintzeko material berezirik.

Lasterkarien segurtasuna bermatzeko, kontrola gunetarik pasatzeko epeak finkatuak dira. Epeetarik kanpo direnak geldiaraziko dira. Aldiz, antolatzaileek epeak molda ditzazkete bereziki baldintza meteorologikoak ez badira onak.

Ibilbidea molda dezakete lasterketa abiatua bada ere, korrikalarien eta laguntzaileen segurtasuna bermatzeko.

Lehiakideek elkar lagundu behar dute.

Korrikalari guziak engaiatzen dira ingurumenaren errespetatzera. Antolatzaileak zorrotzak izanen dira ibilbidean ondakinak botako dituztenekin. Arau hau errespetatzen ez duena, lasterketatik deskalifikatua izanen da.

Trail-aren ibilbidea eta seinaleak errespetatu behar dira eta ez moztu. Labur bideek kalte egin dezakete ingurumenaren erliebeari. Arau hau ez errespetatuz, sailkapen orokorrean ordu bat kenduko zaio korrikalariari.

Lasterketaren helmugan, korrikalariak dutxa bat hartzen ahalko dute Senpereko kirol zelaian. Autobus loturak antolatuko dira hortarako.

Sari banaketaren ondotik, bazkari bat proposatzen da Inharria baserrian. Prezioa 13 Eurotan finkatua da korrikalari eta laguntzat. Gure webgunean izena eman daiteke, edo lekuan berean ere txartelak erosten ahalko dira lekuak gelditzen badira.

2° Artikulua : Ordutegi epeak

Ibilbidea bukatzeko epea 4 ordukoa da. 3 orduko muga emanen da ere Terminen Mugan (15,7 km-an).

3° Artikulua : Jan edanez hornikuntza eta kontrola gunek.

Antolakuntzak ur eta janari energetikoz hornitzeko 4 gune proposatuko ditu ibilbidean zehar.

Lasterketa abandonatuko dutenek 4 gune hauetariko batetarat hurbildu beharko dute. Antolatzaileek eremago dute ondotik abiapundura, Ibarrunerat.

Lehen gunea : Urguri aldapa aintzin : 5,9 km-an

2°gunea : Sainte- Barbe-ko jaitsieran : 10,7 km-an.

3°gunea: Terminen Mugan : 15,7 km-an.

4°gunea : Austeya errekaaren bazterrean : 19km-an.

Ez bada behartua ere, antolatzaileek aholkatzen dute korrikalariari ur minimo baten erematea, bereziki bero egiten badu.

Helmugan ere jateko eta edateko eskainiko da.

Kontrola gunek 5,9km, 9,1km ,14,4km eta 17km-an kokatuko dira. Kontrola hauetarik pasako ez diren korrikalariak sailkapenetik kanpo geldituko dira.

4° Artikulua : Ekipamendua

Korrikalari bakoitzak bizkarrekoa edo dortsala soinean ongi eta agerian lotu beharko du. Ez da ekipamendu berezirik inposatzen. Hala ere, kontseilatua da jantzi bero eta euritakoak hartzea eguraldia txarra baldin bada. Sokorri mantala (couverture de survie) baten erematea hobe.

5° Artikulua : Segurtasuna, osagarria, galdegina den maila

Senpereko Trail-a entrenatuak diren korrikalariari zuzendua da. 5 kilometro guziz gutti gora behera, pertsona batek kontrolatuko ditu korrikalarien pasatzeak. Irrati sare batek lotuko ditu antolakuntzaren zentro bulegoa, mediku taldea eta kontrola guneak.

Senpereko Trail-aren zuzendariak ibilbidearen moldatzea erabakitzeke eskubidea du, arazo teknikoek edo eguraldiak arriskuan emaiten badituzte korrikalariak.

Medikuaren agiria beharrezkoa da. Hortan agertu behar da korrika konpetizioetan parte hartzeko gaitasuna badela. FFA edo FFT kirol federazioetako lizentziak onartuak dira. Mediku agiria agertuko ez duen korrikalariak ez du lasterketan parte hartzen ahalko. Eta ordainketa ez zaio itzuliko (ordainketa aintzinetik egina bada).

6° Artikulua : Ardurak

Korrikalari bakoitzak bere segurtasunaren ardura du eta ingurumena eta laguntzaileak errespetatu behar ditu. (Ez ahantz irri baten egitea laguntzaileari pasatzean... haiek ere plazerrarentzat hor dira).

Lasterketa gunean den oro, sortzen dituen kalteen arduraduna da. Antolakuntzaren segurtasun eta osasun dispositiboa egina da parte hartzaileen eta laguntzaileen sustengatzeko. Ez du ordezkutzen bakoitzaren harreta eta ardura.

7° Artikulua : Zigorak, deskalifikazioa, abandonatzea.

Deskalifikazioak erran nahi du korrikalaria lasterketatik kanporatua dela. Arauen ez errespetatzeak penaltatea edo deskalifikazioa eragindo du. Kasu hauetan antolakuntzak ez du ordainketa itzultzen.

Penaltate edo deskalifikazioa erabaki dezakete lasterketaren zuzendariak edo kontrola guneetako arduradunek arauen ez errespetatzeaz ohartzen badira.

Lasterketa utziezkero, edozoin arrazoinen gatik bada ere, antolakuntzari jakinarazi behar zaio (kontrola guneetakoeri edo mediku taldeari). Kasu hauetan ere antolakuntzak ez du ordainketa itzultzerik egingo.

8° Artikulua : Sailkapena, kategoriak, sariketa.

Sailkapen orokorra ezagutarazia izanen da helmugan. Saristatuak izanen dira lehen 3-ak denboran, eta lehen 3 emazteak.

Sari bereziak ere banatuko dira kategoria hauetan :

Junior gizonak lehena, Junior emazteak lehena, Senior gizonak lehena, Senior emazteak lehena, Beterano 1 gizonak lehena, Beterano 1 emazteak lehena, Beterano 2 gizonak lehena, Beterano 2 emazteak lehena, Beterano 3 gizonak lehena, Beterano 3 emazteak lehena.

Parte hartzaile bakoitzari opari bat eskainiko zaio.

Zuzendariak bakarrik erabakiko du eskabiderik bada, onargarria den ala ez.

9° Artikulua : Izen emaita, hitzordua, harrera.

Izen emaitaek 2013ko abenduaren 22-an idekiko dira. Parte hartzaileek internet bidez eman dezakete izena www.spucasterketa.fr web gunean, edo gutunez.

Izen emaitaren prezioa 17 eurotan da otsailaren 15-a arte. 20 eurotan hortik aintzina.

Parte hartzaile kopurua 600 etan mugatua da.

Ordainketa internetez egin daiteke. Izen emaita onartua izanen da ordainketa eta medikuaren agiria edo lizentzia eskuratu ezkeru.

Antolakuntzak artikulu hau moldatzeko eskubidea du.

10 ° Artikulua : Izen emaiterearen ezeztatzea (anulatzea).

Behin izen emaiterea onartua, ezinezkoa da ezeztatzea. Arrazoin guziak ez dira onartuko.

11 ° Artikulua : Asegurantzaz

Erantzunkizun zibila :

Antolakuntzak erantzunkizun zibilerako aseguraa hartzen du lasterketaren garaierako. Asegurantzaz horrekin, antolakuntzak, parte hartzaileek eta laguntzaileek jasan ditzazketen diru kalteak bermapean (garantia pean) dira.

Asegurantzaz indibiduala :

Parte hartzaile bakoitzak asegurantzaz pertsonala behar du, bilaketa gastuak ordaintzeko adibidez.

Organismo desberdinek proposatzen dute, korrikalariari da hautatzea. Pass'running edo FFA atletismo federazioak proposatzen dute eta lizentziek asegurantzaz barne dute.

12 ° Artikulua : Bizkarrekoen eskuratzea.

Bizkarrekoak bezperatik hartzen ahalko dira Martxoaren 8an beraz, atsaldeko 2 etatik 7 etarat, Ibarrungo frontoian.

Edo Martxoaren 9-an, lasterketaren goizean berean, goizeko 7ak eterditarik aintzina.

13 ° Artikulua : Irudi eskubidea.

Parte hartzaileek onartzen dute lasterketa garaian beren irudiaren erabilpena eta ez dute antolakuntzaren kontra joko.

14° Artikulua : Komunikazio eskubidea.

Antolakuntzak kontaktu zerrendak bere partaideeri komunikatzeko eskubidea du.
Parte hartzaileek errefuxa dezakete baina antolakuntzari jakinarazi behar diote.

Lasterketa hau SPUCMASTERKA elkarteak antolatzen du.

Kontaktuak :

Mugikorrak :

Christian : 06 31 55 20 32

Beñat: 06 11 03 00 78

Email : contact@spuclasterka.fr

Web gunea : www.spuclasterka.fr

